

HERRI-IZENEI BURUZKO ADIERAZPENAK

Gasteiz, 1987-XI-9

EAKo Alkatejauna

Jose Luis Lizundia Askondo, Euskaltzaindiaren Idazkari-ordea eta bere Onomastika Batzordeko Idazkari denak, ondoko

DIKTAMEN hau ematen du:

Elkargo akademiko honek prestatuturiko eta onartutako *Euskal Herriko Udalen Izendegian*, 213 zenbakiaz datorrena, eta orain arte Administrazioaren bertsio ofizialean: *Ea* deitzen dena, euskal bertsio ofizialean: *EA* da.

Herri horren izena dokumentu-agirietan eta idazkera literarioan *EA*, *HEA* edo *Puebla de HEA*, agertzen da. Tradiziozko esaera zahar bat ere ezagutzen da. (Ikus Iturrizaren *Historia General de Vizcaya*).

Udal horren auzo nagusi eta elizate izandakoen izenak honela dira: BEDAROA eta NATXITUA.

“Bedarona” erdal bertsioa da, zeren eta euskaraz bokal arteko *-n-*galtzea baita araua. Horregatik tokiko hizkeran “Bedaru” esaten da apokopez, *Bedaroa* > *Bedaro* > *Bedaru*.

NATXITUA izenaren kasuan ziurtatu beharko litzateke azkenengo *-a* hori itsatsia den ala artikulua, alegia, inesiboan galtzen duen ala ez. Adineko lekukotasunen bat aurkitu beharko zenukete, hor bertan, ahal delak euskaldun hutsa.

OLAGORTA, ANGERUTXU, ALDEBASTER, OLABE eta MENDIOLA auzo izenak ez dute arazorik sortzen. Beraz, euskarazko grafia akademikoan horrela ondo daude.

URTZA auzo izena, horrela izan daiteke, baina agian URTZAGA ere bai. Ziurtatzeko dokumentu-agirietan “Urza” ala “Urzaga” agertzen den ikusi behar duzue. Ebakera ere adierazgarri gerta daiteke, alegia, *urtza* ala *urtzá* esaten den bertan.

Eta hala adierazteko eta bertako Udalbatzari bidaltzeko, izenpetzen dut Bilbon mila bederatziehun eta laurogei eta zazpigarreneko Abuztuaren lauean.

Agur t'erdi!

Batzorde honek bere azken bilkuran, Urriaren 25ean, Leitzako Udalbatzarian egindakoan hain zuzen, beste gai batzuen artean, Alkatetza horretatik igorritako bigarren gutuna aztertu zuen eta honako hau erabaki: Euskaltzaindiak bere *Euskal Herriko Udalen Izendegian* agertu bezala, herri horren izena *EA* dela birresten du. Beraz, Akademi Batzorde honen ustez *IA* ez da herri horren euskarazko izen osoa, *EA* baizik.

Tokian tokiko fonetismo guztiak onartzen hasten baldin bagara, Arguia eta ez *Arrigorriaga*, Iborri eta ez *Ibarruri*, Amoto eta ez *Amoroto*, Elantxu eta ez *Elantxobe*, Muttubar eta ez *Munitibar*, etabar bertsioak onartu beharko genituzke.

Edozein Hizkuntz Akademiak bezala, Euskaltzaindiak ere, euskal toponomastikaren arau orokorrak jagonik, eredu osoak eman eta jarraitu behar ditu, ustezko erizpideei ikerketa —zehaztu eta dokumentatueta oinarritzen ez badira—, eta txokokeriei lar jaramonik egin gabe. Bestela anarkiaren oihanean galduko litzateke.

Hara horretaz zer dion *Euskal Herriko Udalen Izendegiak/Nomenclátor de los Municipios del País Vasco/Nomenclature des Communes du Pays Basque* bere 120 eta 130 orrialdeetan. Ikus eranskina.

Guzti hau da, dagokion Batzordearen izenean ematen dizudan erizpena.

Onomastika Batzordeburua

E. Knörr

* * *